

# ADISKIDETZEAREN SAKRAMENTUA

## OSPATU AURREKO SAIOA

### Berrito elkartzuz – Seme xahutzaillearen parabola

Katekista maiteok, hona hemen katekesiko taldearentzako saioa, Adiskidetzaren sakramentuaren aurretik egiteko. Ahal den neurrian, egoera kontuan hartuta, nolabaiteko patxadaz, eta denborari dagokionez, presarik gabe garatzea gomendatzen dugu, *berriz elkartzu, katekesiari berrekin eta adiskidetzaren sakramentua prestatzeko*. Zalantzarik izanez gero, Fede-zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritzara jo.

#### **Berriz elkartzu**

- ❖ Ukondoaz, hankaz edo, posible bada, eskuaz agurtuko dugu elkar...
- ❖ Berriz elkartzuz:

Hasteko, distantziak gainditzen lagunduko digun, berriz elkar eta igaro dugun konfinamenduan bizi izandakoa batera jartzea ahalbideratuko duen dinamikaren bat garatuko dugu. Honako honekin batera aurkeztutako *Elkartzu berrirako dinamikak izenburua duen* agirian jasotzen diren bi dinamikak egin ditzakegu: Estutxea eta betaurrekoak. Hauek edo egokitzen jutzen duzuen beste edozein erabil dezakezue.

#### **Adiskidetzaren sakramentua hartzeko prestatuko gara**

✚ *Tartetxo bat Jesusekin:*

Bizi izan dugun guzti hau hausnartu eta Jainkoaren eskuetan utzi nahi dugu. Kandela piztuta, gurutzeta eta *“Zeren Seme hau hilda bainuen eta piztu egin zait, galdua nuen eta aurkitu egin dut”* (Lukas 15:24) txatala jasotzen duen orrialdea jarriko ditugu erdian.

Isilunea egin, arnasa sakon hartu eta Jesus agurtuko dugu geure pasahitzaz (Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean) baliatuz. Otoitz egingo dugu *“Seme xahutzaillearen”*, edo hobeto esanda, *“Aita Onaren”*, parabolarekin. ‘Rezando voy’ delako orrialdean umeentzat agertzen den bertsiotik hartuko dugu. Erantsitako agirietan edo webean dago:

<https://rezandovoy.org/reproductor/especial/oracinparacontemplarelperdndelpadre>

*Sakontzeko:* Jesusek kontaktzen diguna bihotzera eraman eta ulertzean datza. *“Hain hurbil – hain urrun”* dinamika garatuko dugu horretarako. Erantsitako agirietan aurkituko duzue.

## *Nire bidea adiskidetzarentz*

Batzuetan, seme gaztearen antzekoak gara, bihurriak, menderakaitzak, geure "etxetik" urrun gaude; eta Jainkoa, eguna joan, eguna etorri, semearen zain egon zen aitaren antzekoa da, beti besoak zabalik harrera egiteko eta barkatzeko prest. Beste batzuetan, seme nagusiaren antza dugu, nekez barkatzen dugu eta egoistak gara.

Ikusi dugu taldeko jokoan egin dugun bidea. Orain, bakarka, adiskidetasunerako bidea nolakoa izango den hausnartuko dugu.

Alde batetik, 'Hain hurbil ala hain urrun?' dinamikaren esaldiak eta bestetik adiskidetzarentz egingo dudan bidea jasoko dituen orrialde bana emango diegu neska-mutikoei. Hausnarketak orrialdean idazteko esango diegu haurrei.

Bakoitzak banan-banan egiten dugun bide honek Jainkoarekiko bategite lagunkoira garamatza, seme xahutzailearen parabolan ikusi dugunez.

Jainkoak, parabolako Aita onak bezala, harrera beroa egiten digu etxera bueltatzean, besarkatu egiten gaitu eta festa egiten du berriz elkartu garelako pozez gainezka.

Horrela prestatuko dugu datozen egunetan ospatuko dugun adiskidetzaren sakramentua.

Elizak eskaintzen digun ondorengo otoitzean, geure bekatuak aitortzen ditugu eta barkamena eskatzen diogu Jainkoari:

*Aitortzen diot Jainko guztiz ahaltuari,  
eta zuei ere bai, ene senideoi,  
bekatu egin dudala  
gogapen, hitz eta egitez,  
eta eginbeharrak ez eginez;  
bai, bekatari naiz.  
Horregatik eskatzen diet Andre Maria beti Birjinari,  
aingeru eta santu guztiei  
eta zuei ere bai, ene senideoi,  
otoitz egin diezaiozuela nire alde Jainko gure Jaunari.*

Apaizak barkamena ematen didanean, hauxe dio:

*Zure bekatuak barkatzen dizkizut,  
Aitaren eta Semearen eta Espiritu  
Santuaren izenean.*

Eta guk erantzun:

*Amen.*

Jainkoarekin bat egiteak, Jainkoaren besarkadak eragiten digun poztasuna adierazteko, Ixcisen "Me siento perdonado" otoitz-abestia entzungo dugu (rezandovoy).

Letra banatuko diegu eta estribilloa abestuko dugu.

### *ME SIENTO PERDONADO*

*Gracias, Señor, me siento perdonado.  
Gracias, Señor, por tu perdón.  
Has cambiado mi luto en danza.  
Ha salido de nuevo el sol. Gracias, Señor.*

*de este pozo nunca salir  
y Tú lo has hecho por mí.  
Y yo creía que no podría  
volver a tener ilusión.  
Ahora me basta tu amor.*

*Y yo creía que no podría*

Topaketaren oinarri izan den Lukasen pasarteko txatala koloretako tiretan idatziko dugu. Abesten dugun bitartean, tira bana emango diegu etxera eramanez.

*"Zeren seme hau hilda bainuen eta piztu egin zait, galdua nuen eta aurkitu egin dut"*  
(Lukas 15:24)

Amaitzeko, ospakizunaren ingurukoak azalduko dizkiegu: eguna, ordua, nola egingo dugun, zerbait eramanez behar duten...